

BURUKETAK

Egin itzazu ondorengo buruketak paperean eta ondoren idatz ezazu erantzuna.

Gogoratu buruketak egiteko urratsak banan-banan jarraitzeaz.

01

Kanpaleku batean 4 lagunentzako 35 kanpin-denda eta 6 lagunentzako 12 kanpin-denda daude, guztiak beteta. Zenbat pertsona daude guztira kanpin-dendetan?

pertsona daude guztira kanpin-dendetan?

02

Paula fruta-dendara joan da 20€-rekin. Poltsa bat sagar erosi du, 2,35 €-an, eta 3 erretilu banana, bakoitza 3,80 €-an. Zenbat diru geratu zaio?

€ geratu zaizkio.

03

Teniseko finalerako, 9 €-ko 620 sarrera eta 12 €-ko 340 sarrera saldu dituzte. Jasotako diruaren bosten bat erakunde ongile bati emateko asmoa dute. Zenbat diru emango diote erakunde ongileari?

€ eman dizkiote erakunde ongileari.